



Sistema berriarekin, bazkide txartelarekin eta eskumuturreko berriarekin kiroldegirako sarrera eta aldageletako takilen sarrailla irekitzeko aukera bateratu da

Udalaren kirol instalazioetan egiten diren etengabeko hobekuntza lanek ekarri dute sistema berritzaile hau, honela erabiltzaileen erosotasun eta eskaintako zerbitzuen kalitatea hobetu nahi da

Kirol arloan Udal gobernuaren helburu nagusietako bat instalazioen eta eskaintzen diren zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan aurrera pausoak ematen jarraitzea da. Etengabeko hobekuntzaren ildo horri eutsiz, Antzizar kiroldegian eskaintzen diren zerbitzuen artean egin den azken berrikuntza da takilen sarrailla elektronikoa .

Aldageletako takilen sarraillak irekitzeko sistema elektronikoa berria jarrita bi eginkizun burutu ahal dira tresna bakar batez baliatuta; bazkide txartela edo eskumuturreko elektronikoarekin kiroldegira sartu

eta takilak ireki. Bazkide txartela erabili nahi dutenek takiletako sarrailla elektronikoak ireki eta isteko kiroldegiko harreraren egokitu beharko dute. Berrikuntza nagusia silikonazko eskumuturrekoa da, eroso, eramangarria eta bi gauza egiteko aukera ematen duelako.

Takilak irekitzeko sistema elektronikoa

Nahiz eta takila batzuetan kandadu eta giltza bidez takilak erabiltzeko aukera mantendu den, gehienetan sistema berria jarri da. Sarrailla elektroniko berriak esan bezala bazkide txartelarekin eta euro baten truke erosi ahal izango den silikonazko eskumuturrekoarekin ireki eta itxi ahal izango dira. Eskumuturrekoak kiroldegira sartzeko ere balio du.

Takiletako sarrailla elektronikoa erabiltzea erraza da. . Lehenik eta behin, txartela edo eskumuturrekoa kiroldegiko harreraren aktibatu behar dira. Ondoren takila aukeratu eta bertan gauzak gorde. Isteko, botoia sakatu eta txartela edo eskumuturrekoa botoira gerturatu behar da eta hotsa entzungo da. Zabaltzeko berdin, botoia sakatu eta txartela edo eskumuturrekoa botoira gerturatu behar da. Takilaren zenbakia ahaztu ezkerreko harreraren dagoen informazio terminalean dagoen irakurgailutik pasa behar da txartela edo eskumuturrekoa eta takilaren zenbakia agertuko da.